

Zangoza / 2020

KULTUR AGENDA

martxoa



Foro Leizorokoa
Sangüesa-Zangoza



AYUNTAMIENTO PALMITELO
VALLESANTALO



Nafarroako
Gobernua



NAFARROAKO
ANTZOKI SAREA

Karmengo Entzunaretoa

SARRERAK SALTZEA

Aldez aurreko salmenta: **martxoaren 3tik aitzina** Vallesantoro Jauregia/Kultura-etxean, asteartetik ostiralera, 12:00etatik 14:00etara eta 19:00etatik 21:00etara, eta Internetetik www.sanguesacultura.es eta www.sanguesa.es web-orriean bidez. **Tfnoa:** 948 870 251

Salmenta txartel-leihatilan antzeppen egunetan: Karmengo Entzunaretoan bertan (sarrerarik izanez gero), antzezpena hasi baino ordubete lehenago.

Tfnoa: 948 870 632

Ikuskizun guztietarako sarrera gehieneko kopurua seikoa izanen da lagun eta ikuskizun bakoitzeko. Ez dira onartuko telefonoz eginiko erreserbak.

Ikuskizunaren arabera, Udalak lagun bakoitzeko sarrera kopurua aldatu ahal izanen du. Behin hartuz gero, ez da aldaketarik, ezta itzultzerik ere onartuko. Ikuskizunaren etena sarreraren zenbatekoa itzultzeko kausa bakarra izango da.

Beharpenak Gazte txartelarekin: 14 eta 30 urte bitartekoa bazara, hala adierazten den saioetan beharpenez gozatu ahal izanen zara. Gazte txartela leihatilan aurkeztu beharko da sarrera entzunaretoan nahiz Interneten erosi bada.



ENTZUMENA HOBETZEKO ANTZERKI IRISGARRIA



Karmengo Entzunaretoak badauka begizta magnetikoko sistema bat inguruko hotsa kendu ahal izateko. Hartara, entzumen-arazoak dituzten lagunek ikuskizunehobeki gozatzeko ahal dira. ERNE! sistema

hau audiofonoa erabiltzen dutenek ez ezik ongi entzuten ez dutenek ere erabiltzen ahal dute inolako aparatuerik eraman ez arren.

Bi kasuetan entzungailua edo begizta aretoko langileei eskatu behar zaizkie.

ANTZERKI IRISGARRIA MUGIKORTASUN MURRIZTUA DUTEN LAGUNENDAKO

Karmengo Entzunaretoak mugikortasun murriztua duten lagunendako gunea bat gordetzen du. Eserleku hauetako bat hartu behar bada edo erreserba hau egiteko laguntza behar baduzue, jarri harremanetan Kultura-zerbitzuarekin infocultua@sanguesa.es posta elektronikoa edo deitu 948 870 251 telefonora edo adierazi txartel-leihatilan erosketagiterakoan.

Vallesantoro Jauregia/Kultura Etxea

Kultura-etxeko Arreta Ordutegia: astelehenean 9:30etik 14:00etara.

Asteartetik ostiralera, 9:30etik 14:00etara eta 18:00etatik 21:00etara.

Erakusketa Aretoko Ordutegia: asteartetik larunbatera, 19:00etatik 21:00etara. Igande eta Jaiegunetan 12:00etatik 14:00etara.

Helbidea: Alfontso Borrokalaria Karrika 20. Tfnoa: 948 870 251

Kultura-agenda posta elektronikotik jaso nahi baduzu, helbide honetara eska dezakezu: infocultura@sanguesa.es.

Facebooken eta www.sanguesacultura.es web-orriean gure kultura-agendari segi diezaiokezu eta datuak babesteko legea honakoetan kontsultatu:

www.sanguesa.es

 www.facebook.com/culturasanguesa

 www.instagram.com/culturasanguesa

Zangozako Udalak ez du bere gain ardurarik hartzen, aldatzen diren edo betetzen ez diren ekitaldiengatik, baldin eta hauek egitarau honetan ez badira aditzera eman.



1	Ig	IntercambiArtez erakusketaren amaiera	4. orr.
2	Al		
3	As		
4	Az	Ipuin kontalaria. "El libro más feo del mundo" (gazt.)	8. orr.
5	Og	Erakusketa "Mujeres y niñas en la Agenda 2030" (martxoaren 22a bitarte)	4. orr.
	Og	Errezitaldi poetikoa "En carne y verso"	9. orr.
6	Os	Erakusketa "Lazos" (martxoaren 29a bitarte)	4. orr.
7	La		
8	Ig	Emakumearen Nazioarteko Eguna. Erritar elkarretaratzea, manifestaldia, herri bazkaria, tailerrak	10. orr.
9	Al		
10	As		
11	Az	Musika Eskolako ikasleen kontzertua	10. orr.
	Az	Ipuin kontalaria. "Ipuin dibertigarriak" (euskaraz)	8. orr.
12	Og		
13	Os		
14	La		
15	Ig		
16	Al		
17	As		
18	Az	Ipuin kontalaria. "The bicycle race" (ingelesez)	8. orr.
19	Og		
20	Os		
21	La	Antzerkia. "El enjambre"	5. orr.
22	Ig		
23	Al	Musika Eskolako ikasleen kontzertua	10. orr.
24	As		
25	Az		
26	Og		
27	Os		
28	La	Musika. "Incorrectas"	6. orr.
29	Ig	Familiako antzerkia. "¡Estás en Babia!"	6. orr.
30	Al		
31	Ma		

apirila

4	La	Antzerkia. "Maestrissimo"	7. orr.
----------	----	---------------------------	---------

Azaleko argazkia: "Maestrissimo". Producciones Yllana.

Erakusketak



Enrique Ruiz

INTERCAMBIARTEZ: "CUANDO ANOCHECE: AOIZ Y SANGÜESA EN EL OBJETIVO"

AGOITZ ETA ZANGOZAKO ARGAZKIGINTZA-ELKARTEEN TALDE-ERAKUSKETA

MARTXOAREN 1ERA BITARTE

Antolatzaileak: Agoitz eta Zangozako Udaletako Kultura-alorrak.

Lekua: Vallesantoro Jauregia/Kultura-etxeko Erakusketa Aretoa.

Laguntzailea: Nafarroako Gobernua.



"MUJERES Y NIÑAS EN LA AGENDA 2030"


MARTXOAREN 5ETIK 22RA

Fundacion Fabrek erakusketa honen bidez, emakume izate hutsagatik beren giza eskubideak eskuratzen ez dituzten milioika emakumeren errealitatea erakutsi nahi du. Horren bitartez, Garapen Iraunkorraren helburu bakoitza deskubritzera gonbidatzen gaituzte, haurraren eta emakumearen artean jarritz.

Lekua: Vallesantoro Jauregia/Kultura-etxeko Erabilera Anitzeko Aretoa.

Antolatzailea: Fundación Fabre.

Laguntzailea: Nafarroako Gobernua.



"LAZOS"

MAITE CANTO EQUISOAIN

MARTXOAREN 6TIK 29RA

"Lazos", Nest (habiak) bildumaren jarraipen sortzaile baten emaitza da, ez hain abstraktua baina. Hemen dena sinbolikoa da, obra bakoitza elkartasunezko begizta bihurtzen duen koloretik hasita, etengabeko mugimenduan dauden formetara, obaltoa amaren umetoki gisa eratuz, eta horren erdian emakumea kokatzen du. Suaren aurkako beira-zuntzak eta erretxina ekologikoak sare sozial bat "ehuntzen dute". Baoek masaren balio bera dute, isiluneek hitzen balio bera. (Maite Canto)

Lekua: Vallesantoro Jauregia/Kultura-etxeko Erakusketa Aretoa.

Laguntzailea: Nafarroako Gobernua.

Bisita egiteko ordutegia: Asteartetik larunbatera, 19:00etatik 21:00etara. Igande eta jaiegunetan 12:00etatik 14:00etara

Arte eszenikoak

Carmengo entzunaretoan



ANTZERKIA

“El Enjambre”

VAIVEN PRODUCCIONES

LARUNBATEAN, MARTXOAK 21

Antzerkilariak: Aitziber Garmendia, Sara Cózar, Getari Etxegarai, Vito Rogado, Leire Ruiz, Dorleta Urretabizkaia, Naiara Arnedo.

Zuzendaria: Mireia Gabilondo.

Proposamen freskoa, umore eta zirrara handiz txirikordatua, malakoak eta barrea baimenik eskatu gabe nahasten dituen komedia garratza. Haurtzaroko lagun talde bat landetxe batera joan da haietako baten ezkondu aurreko agurra ospatzera. Baina urteak ez dira alferrik pasatzen, eta, nahiz eta haien artean oso lotura sendoa sentitu, ezer ez da lehen zena ... edo bai! Hasiera batean asteburu ero bat izanen zena erotu eginen da ahal bada: trapu zikinak, inoiz esan ez diren gauzak, aitorpenak, alkohola, droga eta erlekume bat.

Ikusleak: gazteak eta heduek.

Iraupena: 75 minutu.

Ordua: 20:00.

Aldez aurreko salmenta: 8 €.

Txartel-leihatilan: 10 €.

Gazte Txartelarekin: 5 €. Gazte txartela leihatilan aurkeztu beharko da sarrera entzunaretoan nahiz Interneten erosi bada.

Laguntzaileak: Nafarroako Antzoki Sarea (NAS) Elkartea eta Nafarroako Gobernua.

Arte eszenikoak

Carmengo entzunaretoan



MUSIKA

"Incorrectas"

DEMODÉ PRODUKZIOAK

Dramatizaturiko kontzertua

LARUNBATEAN, MARTXOAK 28

Interpretatzaileak: Joli Pascualena: ahotsa eta gitar akustikoa; Leire Celestino: pianoa; Paula Azcona: txeloa.
Zuzendari eta testu egilea: Patxi Barco.

"Incorrectas" bere garaiko politikarekin, kulturarekin edo ohiturekin "okerrak" izan ziren abeslari edo musikagile ezagunei buruzko musika ikuskizuna da, haien artean oso bestelakoak izan arren: Janis Joplin, Maria Callas, Judy Garland, La Lupe, Dolly Parton, Nina Simone, Sinead O'connor, Chavela Vargas...

Ikusleak: Gazteak eta helduak.

Iraupena: 70 minutu.

Ordua: 20:00.

Aldez aurreko salmenta: 8 €.

Txartel-leihatilan: 10 €.

Gazte Txartelarekin: 5 €. Gazte txartela leihatilan aurkeztu beharko da sarrera entzunaretoan nahiz Interneten erosi bada.

Laguntzaileak: Nafarroako Antzoki Sarea (NAS) Elkartea eta Nafarroako Gobernuua.



FAMILIAKO ANTZERKIA

"¡Estás en Babia!"

PRODUCCIONES MAESTRAS

Iruñeko Udalaren 2019ko Arte-sormenari saria

IGANDEAN, MARTXOAK 29

Interpretatzaileak: Adriana Salvo, Iratxe G. Úriz eta Ángel García Moneo.

Zuzendaria: Ana Maestrojuán.

Juliak ezin du oreka lortu, Julia beti bere munduan bizi dela dirudi, Julia izarrei begira egoten da... amak deitzen dionean ez dio inoiz erantzuten lehenengoan, lagunak harekin jolasten ari direnean,

Arte eszenikoak

Carmengo entzunaretoan



anitzetan galdu egiten zaie. Julia ez da despistatua, kontua da beti "Babian dagoela". *Babian zaude!* irudimenari egindako kantua da, gutxien gustatzen zaigun errealitatea eraldatzeko guztiok dugun gaitasunari egindakoa.

Familiako ikusleentzat.

Iraupena: 50 minutu.

Ordua: 18:00.

Aldez aurreko salmenta: 3 €.

Txartel-leihatilan: 5 €.

Laguntzaileak: Nafarroako Antzoki Sarea (NAS) Elkarte eta Nafarroako Gobernua.



MUSIKA ETA KEINU-ANTZERKIA

"Maestrissimo"

PRODUCCIONES YLLANA

LARUNBATEAN, APIRILAK 4

Antzerkilariak: Eduardo Ortega, Jorge Fournadjiev, Isaac M. Pulet, Jorge Guillén "Strad".

Maestrissimo XVII. eta XVIII. mendeen artean (Barrokoaren eta Neoklasizismoaren artean) zehaztu gabeko garai batean hari-laukote baten abenturak eta harriabarrak erretratatzan dituen ikuskizun komiko eta musikala da. Bertutetsu hauek aurrera ateratzeko egindako ahaleginen lekuko izanen gara, artistek lorezainek edo sukaldariak izan zezaketen antzeko begirunea zuten garai batean. Musikariak, biziraun ahal izateko, lan egiten zuten jauntxoaren desio eta kapritxoaren aurrean makurtu behar ziren. Batez ere zirkunstantzia-obrak konposatuz edo eskaera oso zehatzei eta, sarritan, batere bizigarriak ez zirenei erantzunez.

Ikusleak: Gazteak eta helduak.

Iraupena: 90 minutu.

Ordua: 20:00.

Sarrerak: 12 €.

Laguntzaileak: Nafarroako Antzoki Sarea (NAS) Elkarte eta Nafarroako Gobernua.



Ipuin kontalaria



“El libro más feo del mundo”

EVA AZPILIKUETA (Gaztelaniaz)

ASTEAZKENEAN, MARTXOAK 4

Antzinako liburutegi batean munduko libururik itsusiena dago. Gure protagonista mota guztietako arriskuei aurre egiteko prest dago hura aurkitzeko. Zer egin nahi ote du berarekin?

“Ipuin dibertigarriak”

SERGIO DE ANDRÉS (Euskaraz)

ASTEAZKENEAN, MARTXOAK 11

Barre egin eta ongi pasa nahi baduzu, ezin duzu galdu.

Kontu ero eta zentzugabeenak entzun nahi badituzu, hemen aurkituko dituzu.

Ez huts egin eta etortzera anima zaitetz!!!!



“The bicycle race”

HANNAH BERRY (Ingelesez)

ASTEAZKENEAN, MARTXOAK 18

Annie Londonderry, munduari bizikletan buelta ematen saiatzen den lehen emakumea. Lortuko al du?

Ingelesezko istorio bat, eta, ondoren, antzerki-jolasak, haur guztiek goza dezaten.



Ikusleak: 3 eta 8 urte bitarteko umeak. 7 urtetik beherako umeei helduek lagundu behar diete.

Ordutegia: 18:30etik 19:30era.

Lekua: Vallesantoro Jauregia/Kultura-etxeke Erabilera Anitzeko Aretoa.

Laguntzailea: Nafarroako Gobernuia.

Emakumearen Nazioarteko Eguna



Zangozan hainbat ekitaldi prestatu dira martxoan emakumeen presentzia nabarmantzeko:

ERAKUSKETAK

María Canto eta *"Mujeres y Niñas en la Agenda 2030"* erakustaldia protagonistak izanen dira martxoan zehar, Kultura-etxeko Erakusketa aretoan (argibide gehiago 4. orrialdean).

ANTZERKIA ETA MUSIKA

"El Enjambre", emakumeek zuzendu eta interpretatutako obra, eta *"Incorrectas"*, musikaren historiara igaro diren emakume interpretatzaileen eta egileen omenezko kontzertu dramatizatua, Karmengo Entzunaretoan gozatu ahal izango ditugun proposamen eszenikoak dira. (argibide gehiago 5. orrialdean).

ISABEL HUALDEREN "EN CARNE Y HUESO" ERREZITALDI POETIKOA

OSTEGUNEAN, MARTXOAK 5

"El entramado luminoso", *"Caminar horas"*, *"Cisne azul o cisne negro"*, *"Reconstrucciones"* eta abar.

Egileak **Saioa Losada** izango du lagun gitarrarekin. Bideo proiektzioa. Nafarroako Ateneoko "Angel Urrutia" poesia taldeko kidea da Isabel Hualde. Baita Nafarroako Idazleen Elkarteoa eta hainbat literatur taldetakoa ere.

"Con la luna por sombrero" proiektuaren eta poesia errazeko tailerren bultzatzailea Anfas/Iruñean (2013/2015), Jose Luis Allorekin batera. Halaber, Anfas/Iruñea Autogestoreen taldea bultzatu duena. Gaur egun, Zangozan abuztuan aurkeztu ohi den "Somos esp@ciales" inklusioaren aldeko proiektuan parte hartzen du.

Ordua: 19:00.

Lekua: Zangozako Vallesantoro Jauregia/Kultura-etxeko Hitzaldi Aretoa

Antolatzaileak: Zangozako Udalaren Kultura eta Gizarte-gaietarako Zinegotzigoak.

Emakumearen Nazioarteko Eguna



HERRITAR ELKARRETARATZEA
"BERDINTASUN BELAUNALDIKOA NAIZ.
EMAKUMEEN ALDEKOA"

OSTEGUNEAN, MARTXOAK 8

Ordua: 12:30.

Lekua: Prau.

Deitzaile eta antolatzailea: Zangozako Udalaren Gizarte-gaietarako Zinegotzigoa

Laguntzaileak: Zangozako Etxekoandreen Elkartea, Leyre Mendia BHI, Zangozako Ikastola, Zangozako Gurutze Gorria, Cederna Garalur-Zangozaldea/Nafar Lansare eta Sorginak Talde Feminista.



SORGINAK TALDE FEMINISTAK
ANTOLATURIKO EKITALDIAK

IGANDEAN, MARTXOAK 8

Manifestaldia Udalak antolatutako elkarretaratzearen ondotik.

14:00etan: Bazkaria autogestionatua Arkupeetan. Jarraian, kontzertuak.

18:00etan: "Quiérete Mucho" tailerra Marian Arraizaren eskutik.

Musika Eskola



"JUAN FRANCÉS DE IRIBARREN"
MUSIKA ESKOLAKO IKASLEEN
KONTZERTUA

MARTXOAK 11, ASTEAZKENA
ETA 23, ASTELEHENA

Ordua: 19:30.

Lekua: Karmengo Entzunaretoa.